

MANDOA MANDO GAÑEAN

Bilintx zeritzayon bertsolari trebe ta gizon jator bat bizi zan Donostia'n, orain urte askotxo dirala. Bere izena darama gaur Donosti'ko kale batek Iri ortan bertan bizi zan garai artan Kanpaña izendun gizon zaar lodi-lodi bat. Geyenetan zaldiz ibiltzen omen zan. Onek, Bilintx zirikatu nairik, egun batez, mando gañetik, bertso batzuk zuzentzen dizkio besteari.

Bai azkar, egoki ta zorrozkiro erantzun ere Bilintx'ek Kanpaña'ri, zuzentzen dizkio besteari.

Mando baten gañean
Domingo Kanpaña:
Ez dijoa utsikan
Mando orren gaña.
Azpian dijoana
Mandoa da, baña
Gañekoa ere bada
Azpikoa aña:
Mando baten gañean
Bestea ¡alajaña!

BIDEKURUTZEKO MUTILLA

Bein baten, Bidekurutze'ko mutilla, azkora zorrotz bat eskuan ebala, zugatza inausiteko asmuagaz, basorantza juan zan. Eta, basora eldu ta beriala, pago andi baten ganera igonik, zugatzaren adarrik sendoena azkoriak joten asi zan; berak oñak ezarrita eukozaan zugatadarra lenengo ebagi biar ebala otu yakon, baña...

Orretan inarduala, basoaren erdiko bidian gizon txikitxiki bat otoz otoan agertu zan. Gizon txikia, asto zar baten ganean abestuten alai-alai etorran. Bidezti ezezagun arek, Bidekurutzeko mutilla beraz oñak ezarrita eukozaan adarra ebagiten ikusi ebanian, barre egiñak bere kolkorako esan eban: «Kokolozarorrek, bere oin-azpiko egurra ebagiten daragoyok, ba, ta... Olan jarraitzen bayok, laster dok jausi...»

Ta, bere begiak maitasunez zugatzera zuzenduaz, ondo gurez, esan eutson:

—Mutil... Ori zugatz adar or jausten dan unean, eu bere jausiko az... Abil, ba, arduraz.

Zugatg ganian inausketa gogorrian ebillan mutillak itz orrek entzun ebazanian, barre-santzuak egin ebazan. Eta irri ta barre asko eginde gero, gizon txikiari destañez esan eutson:

—Jausi...? Bai zera! Jausiko nazalagarteko aztru ala igarlaren bat ete az eu...? Olako gauzarik etxuat nik sinistuten...

—Ez, enok aztrua ta ez igarlia be. Baña, aztrua ta igarlia ez nazari arren, or zugatz ganian abillan lez ba abil... azkenengo azkorakadia emotiagaz batian jausiko azala igarteko lain argi ba-vekuat buruan. Beraz, zugatz adarragaz batian jausiko azala barrito diñoat.

—I az kokolua...! Ori bere esan? Nok siñistu ba legok orraitik...

Eta ori esanik, Bidekurutzeko mutillak, bere arloan len baño garratzago ekin eban; azkoraketa errimian ebillan. Eta, ekin eta ekin, alako baten bere oin azpiko adarra lokatu egin zan, eta *karrak* ots zolia egiña lurrera jausi zan. Eta, adarragaz batian, mutillaren gorputz errimiak be lurriran ots egin eban, zartada gogorra artuten ebalarik.

Orduan mutilla ikaratu zan; bidetik igaro zan gizonaren esana osoan bete zalako, bildurrez jarri zan. Eta berari itz egin eutson gizona igarlaren bat izango zala-ta, aren atzetik bidez-bide juan zan.

—Arrayoa...! Gizon txiki orrek igarri egin yaustak esan eban. Igarlaren bat edo izan biar yok berak. Irri ta barre egin dautsadan arren, bere billa juango nok, eta txarto esanaren «parkaziñica» damuz beterik eskatuko dautsat... Gizon ori, nor ete dot? Jausiko nazala igarri dausten ezker... biar bada... noz ilgo nazan be igarri al izango yok eta... Ori, ori ba nekik...!

Ibilli ta ibilli eginda gero, alako baten, gizon txikia bide ertzeko landa baten atsedenduten egoala aurkitu eban. Eta, itzalez ta bildurrez urreratuta, itz tamaltsuz, esan eutson:

—Zu, gizon, oirri ta barre egiñaz damu naz biotzez... eta neure oker esan guztiak parkatu dagistazuzala arren egiten dautzut... Gizon andiren bat zarialakoan nago ta... Len, zugatzetik jausiko nazala esan daustazunian irri ta barre egin dautzut, eta ezertxu be ez dautzut siñistu, zure esanak aiziaren putzak izango zerialakoan. Orain, baña, guztia siñisten dot, zeure esanak osoan betetu diralako... Ori igarri dozun ezker, barriz, orain beste gauza bat be igarriko dozulakoan nago... Itxaron pizkaten, ba, itaun garrantzitsu bat egin biar dautzut-eta. Noz ilgo nazan jakin gura neuke... Noz ilgo naz, ba...?

—Gauza guztiak parkatuta daukozuak, muti! —erantzu eutson gizon txikiak—. Baña... bakik gero, itaun azartu bat egin daustakela bertan? Norbera noz ilgo dan jakitia, zer dala uste dok...? Baña, tirok, tirok, itxaron egik apurtxu baten; ire itaun azartuak erantzuna laster izango yok eta...

Gerotxuago, gizon txikiak, bere astua erakutsita, esan eutson:

—Eutso, asto au eureztat... Euretzako lagunik onena berau dok, izan be, ta... Eu noz ilgo azan jakin gura badok, barriz, na asto onegaz mendirik mendi ta bide asko igarota gero, astuak atzeko iru estul egiten duazanian, ire azkena izango dok.

Mutilla, gizon txikiak esan eutsonaz ikeratu zan. Olan da be, bere astua aurrian ebalala mendia gora abiau zan.

Apurtxu baten ibillita gero, mendi barrenian, astuak estul bat egin eban, eta goratxuago barriz, beste estul bat. Bigarren estulak,

gure mutilla «lau-orrien» ikeran imiñi eban. Eta irugarren estula entzun ebanian, Bidekurutzeko mutilla, bere azkena orduantxe izango zala-ta, bildurraren bildurrez ikeratuta, konorte barik jausi zan.

Olan egoala, bertatik lau gizon igaro ziran; eta bidiaren erdian mutilla konorte barik ikustian, ildakoren bat zala uste izan eben. Eta, lau gizon arek, Bidekurutzeko mutilla, ilda egoalakoan, sorbaldetan artuta erruki andiz eroan eben.

Lau gizonok, mutillagaz mendia bera jayazala, bidekurutze batera eldu ziran. Bertan lau bide egozan. Eta gizon bik bide batetik jua gura izan eben, ta besteak ostera, beste bide batetik. Zein bideri jarraitu ebatzi eziñik ebiltzazala, gizonok, eztabaida garratzian asita asarre gogorrian asi ziran.

Orduan, ildakotzat egoan mutillak, bere arpegi zurbilla bat-batez gora jasota, eskuagaz alboko bide bat erakutsiagaz, abots tamaltsuz esan eutsoen:

—Ni, bizirik nengoanian, ortixik bidetik juaten nintzan.

Mutillaren abots ituna entzun ebanian, lau gizonak gelduta geratu ziran. Eta, ildakoak itz egin eutsola-ta, «gorpua» bertan-bera bidiaren erdian itxita anka-joko erri mian egin eben.

«Bidekurutze» mutilla be, bere burua bakarrik ikustian, bildurrez ariñeketan asi ziran. Bera eroan eben gizonak arrapau gurarik tximistia lez jua ziran, nozipein didarka esaten ebalarik: «Or nozue, or nozue».

Eta bidez-bide aringa juanik, gizon eta mutil, mendi barrenian ayenatu ziran...

Mañariko

ALPERRA ETA FINA

Lagun ez diran izakera bi
Daukaguz emen munduan;
Bata da fiñea, bestia alperra,
Beti alkarraz autuan.
Egi aundijau euki dagigun
Aztu bagarik gogoan;
Alperra ez dala txarto izango
Fiñak dabixen lekuan.

Alperra beti atxiki billa
Nundik lanai iges eingo;
Ta fiña, barriz, bizkor lanera
Nui ogia irabaziko,
Jelagaz baño bere lanagaz
Garatzen gogoratzen da geiago;
Alperra, barriz, mairako gertu
Nok jaten emon ba'lego.

Lege txiki bat jarriko n-uke
Guztion onuragarri;
Lege au da, ba, janik ez emon
Lanik gura ez dabenari;
Era onetan ainbeste alper
Ez genduke eingo ikusi,
Eta danontzat izango geunke
Naikua arto ta ogi.

Alperkeria dogu munduan
Gose guztien sustraia;
Lan egitetik yatorku, barriz,
Zoriona ta ogia.
Alde batera itxi dagigun
Betiko alperkeria,
Gura ba'dagu alkar arteko
Zoriona ta bakia.

Enbeita'tar Balendin